ZESTOAKO UDALA

ALKATETZA DEKRETUA

94. zk

MIKEL ARREGI URRUTIA, Zestoako Udaleko Alkateak, ondorengoa kontuan hartuz:

a) Zestoako Udalerako kale-garbitzaile makina baten hornidura kontratazio beharra.

b) Preskripzio teknikoak landu dira.

c) Idazkariak eta kontu-hartzaileak txostenak egin dituzte.

EBAZTEN DU

Lehena.- Baldintza administratiboen plegua onartzea.

Bigarrena.- Pleguak argitaratu eta lehiaketa martxan jartzea.

Hirugarrena.- Tokiko Gobernu Batzarrak ospatuko duen hurrengo saioan Alkatetza dekretu horren berri ematea.

D. MIKEL ARREGI URRUTIA, Alcalde del Ayuntamiento de Zestoa, teniendo en cuenta los siguientes extremos:

a) La necesidad de contratar el suministro de una máquina barredora para el Ayuntamiento de Zestoa.

b) Se han elaborado las prescripciones técnicas.

c) Se han emitido los informes del secretario e Interventor.

RESUELVE

Primero.- Aprobar el pliego de clausulas administrativas particulares.

Segundo.- Publicar los pliegos y poner en marcha el concurso.

Tercero.- Dar cuenta del presente decreto de Alcaldía en la próxima sesión que celebre la Junta de Gobierno Local.

ZESTOAKO UDALA

ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA		PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES
GAIA: ZESTOAKO UDALERAKO KALE-GARBITZAILE MAKINA BATEN HORNIDURA		**TEMA: SUMINISTRO DE MÁQUINA BARREDORA PARA EL AYUNTAMIENTO DE ZESTOA**
I.- KONTRATUAREN EDUKIA		**I.- CONTENIDO DEL CONTRATO**
1. KONTRATUAREN XEDEA		**1. OBJETO DEL CONTRATO**
Baldintza-agiri honek arautzen duen kontratuaren xedea da "**ZESTOAKO UDALERAKO KALE-GARBITZAILE MAKINA BATEN HORNIDURA**" deiturikoan jasotakoak burutzea. Hori osatzen duten dokumentuek, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriak eta Preskripzio Teknikoen Agiriak kontratu izaera izango dute eta esleipendunak, onespenaren adierazle gisa, sinatu egin beharko ditu kontratua izenpetzerakoan.		Es objeto del contrato que se rige por el presente pliego es el "**SUMINISTRO DE MÁQUINA BARREDORA PARA EL AYUNTAMIENTO DE ZESTOA"**, de conformidad con el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas, que deberán ser firmados en prueba de conformidad por el adjudicatario en el acto de formalización del contrato.
Kontratuaren xedeari dagokion CPV nomenklaturaren kodifikazioa: 34144430-1		Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato: 34144430-1
Kontratuaren xedeak sorta bakarra du.		El objeto de este contrato viene configurado como un único lote.
2.IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA		**2. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO**
Kontratuak **hornidura izaera administratiboa** izango du, eta bertan jasotzen ez den guztian, ondoko legeek xedatutakoari jarraituko zaio:		El contrato tendrá **carácter administrativo de suministro,** y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en:
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. (aurrerantzean SPKL)		- Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014. (en adelante LCSP)
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea garatzen duena.		- Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de Contratos del Sector Público.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Arautegi Orokorra onesten duena, SPKLn xedatutakoa kontraesaten ez duen guztian		-Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de Administraciones Públicas, en todo lo que no contradiga lo establecido en la LCSP.
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.		- La Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

- Toki Araubideko gaiei dagozkien eta indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, SPKLk xedaturikoarekin kontraesanean ez datorren guztian.		- Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones vigentes en materia de Régimen Local, en cuanto no se oponga a lo establecido en la LCSP.
- Osagarri gisa zuzenbide administratiboko gainontzeko arauei jarraituko zaie eta, horrelakorik ez balego, zuzenbide pribatukoei.		- Supletoriamente regirán las restantes normas del derecho administrativo y en su defecto las del derecho privado.
Plegu honez gain, kontratu izaera izango dute hurrengo dokumentuek:		Además del presente pliego tendrán carácter contractual los siguientes documentos:
- Preskripzio Teknikoen Pleguak. - Eranskinak.		- El Pliego de Prescripciones Técnicas. - Anexos.
- Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluak ezarritako hizkuntza koofizialtasunaren araubidea betetzera, euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak eta Lege hau garatzen duten araudiak arautua, eta baita Zestoako Udalaren Euskararen erabilera Plana.		- Al régimen de cooficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre otros, el plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Zestoa.
Ez ezagutzeak kontratuko klausulak, kontratuaren parte diren bestelako dokumentuak, ezta hitzartuta-koa betetzekoan aplikagarriak diren jarraibide edo arauak, edo horien alderdiren bat, ez du esleipenduna horiek guztiak betetzetik salbuesten		El desconocimiento de las cláusulas del contrato en cualquiera de sus términos, de los otros documentos contractuales que forman parte y de las instrucciones o de la normativa que resulten de aplicación en la ejecución de lo pactado, no exime a la adjudicataria de la obligación de cumplirlas.
Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan beste edozein dokumentazioren artean kontraesanik balego, agiri honetan zehaztutakoek izango dute indar, alderdi kontratatzaileen eskubide eta betebeharren arautzaile gisa.		Si existiera contradicción entre este Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y cualquier documentación que se adjunta al expediente, se estará a lo dispuesto en este documento, como regulador de los derechos y obligaciones de las partes contratantes.
3. KONTRATUAREN IRAUPEN-EPEA		**3. PLAZO DE DURACIÓN DEL CONTRATO**
Kontratazio honetako gehienezko iraupen epea, **HORNIDURARI** dagokionez **SEI (6) ASTEKOA** izango da, eta **BERMEARI** dagokionez, **HOGEI ETA LAU (24) HILABETEKOA** izango da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.		El plazo máximo de duración objeto de la presente contratación respecto al **SUMINISTRO** será de **SEIS (6) SEMANAS**, y en relación a la **GARANTÍA** sera de **VEINTICUATRO (24) MESES** contados a partir del día siguiente al de la firma del contrato.
Epe hori igaroz gero, kontratatutako enpresa berandutze egoeran egongo da eta Administrazioaren aldetik ez dago ohartarazi beharrik izango.		La empresa contratada se entenderá incursa en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

ZESTOAKO UDALA

4. KONTRATUAREN PREZIOA		**4. PRECIO DEL CONTRATO**
Kontratuaren lizitazio oinarriaren aurrekontua da **89.484,34 €, BEZ barne.** Horietatik, 73.954,00 € printzipalari dagozkio, eta 15.530,34 € BEZaren % 21ari, eta kopuru hori hobetu ahal izango dute lizitatzaileek beren eskaintzetan.		El Presupuesto Base de Licitación del contrato es de **89.484,34 € IVA incluido**, y de los cuales, 73.954,00 € corresponden al principal y 15.530,34€ al 21% de IVA, cantidad que podrá ser mejorada a la baja en sus ofertas por los licitadores.
Kontratuaren balio zenbatetsia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 101. artikuluan ezarritakoaren arabera 73.954,00 € da, BEZik gabe.		El valor estimado del contrato, calculado de acuerdo con lo establecido en el artículo 101 de la Ley de Contratos del Sector Púbico asciende a 73.954,00 €, IVA excluido
Aurreko prezioa maximoa da, eta lizitatzaileek beherantz hobetu ahalko dute. Lizitazio-prezioa gainditzen duen eskaintzarik ez da onartuko.		El precio anterior es el máximo y los licitadores podrán mejorar a la baja. No se admitirán ofertas que superen el precio de licitación.
6. FINANTZAKETA		**6. FINANCIACIÓN**
Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeak eragingo dizkion betebehar ekonomikoei aurre egiteko; 2022rako aurrekontuko ondorengo partidan: 1 0600.623.02.163.00 2022		Existe crédito adecuado y suficiente para atender a las obligaciones económicas que se deriven para el Ayuntamiento del cumplimiento de este contrato, siendo su consignación presupuestaria para el 2022 la siguiente: 1 0600.623.02.163.00 2022
7. NOLA ORDAINDU		**7. FORMA DE PAGO**
Hornidura entregatu eta jasotakoan egingo da horren ordainketa, eta horretarako faktura aurkeztu beharko da.		El pago del precio del suministro se realizará contra entrega y recepción del mismo y previa presentación de la correspondiente factura.
Esleipendunak faktura **formatu elektronikoan aurkeztuko du,** *Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu orokorraren* (FSPOe) bitartez (https://gfaegoitza.net/SarreraPuntua), Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak ezarritako aurkezteko moduan.		El adjudicatario presentará la factura **en formato electrónico**, a través del *Punto General de Entrada de Facturas de Gipuzkoa (PGEFe) (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua),* en la forma de presentación establecidos en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público.
Unitate organikoen DIR3 kodeak: • Zestoako Udala: • Organo kudeatzailea: L01200277 • Unitate tramitatzailea: L01200277 • Kontabilitate bulegoa: L01200277		Códigos DIR3 de las unidades orgánicas: • Ayuntamiento de Zestoa: • Órgano gestor: L01200277 • Unidad tramitadora: L01200277 • Oficina contable: L01200277
Faktura onartu ondoren, SPKLren 198 artikuluan jarritako legezko epeetan ordainduko da.		Una vez aprobada la factura, esta será abonada dentro de los plazos legalmente previstos en el artículo 198 de la LCSP

Enpresa esleipendunari ez dagozkion arrazoiengatik, kontratuaren helburu diren prestazioak aldi batean betetzen ez badira, dagokion ziurtagirian kendura proportzionalak egingo dira.		Cuando por causas no imputables a la empresa adjudicataria dejaren de efectuarse circunstancialmente las prestaciones objeto del contrato, se verificará la deducción proporcional en la factura correspondiente.
8. KONTRATAZIO ORGANOA		**8. ÓRGANO DE CONTRATACIÓN**
2017ko SPKLko bigarren xedapen gehigarria jarraituz kontratu honen kontratazio organoa Plenoa da.		De conformidad con la Disposición Adicional Segunda LCSP 2017, para el presente contrato el órgano de contratación es el Alcalde.
9. PREZIOAK BERRAZTERTZEA		**9. REVISIÓN DE PRECIOS**
Kontratuaren prezioa ezingo da berrikusi, SPKLko 103 artikuluak xedaturikoarekin bat etorriz.		No procede la revisión de precios de acuerdo con el artículo 103 LCSP 2017.
10. BERMEAK		**10. GARANTÍAS**
Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen		***Garantía provisional:*** No se exige
Behin betiko bermea:		***Garantía definitiva:***
Eskaintza hoberena kalitate prezio erlazioan aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du, esleipenaren zenbatekoaren %5 adinakoa, BEZ kanpo, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko.		El licitador que hubiera presentado la mejor oferta en relación calidad-precio deberá acreditar la constitución de la garantía de un 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas.
Kontratuaren adjudikaziodunaren proposamen ekonomikoa hasiera batean ez normaltzat jo edo neurriz kanpokoa kontsideratuz gero, geroago onartua izan dena, aurreko kopuruaz gain jarri beharko du adjudikazio zenbatekoaren % 5eko berme osagarri bat; hortaz, bermea guztira izango da kontratuaren prezioaren % 10.		En el caso de que la proposición económica de la empresa adjudicataria del contrato se hubiera considerado inicialmente como anormal o desproporcionada, para posteriormente ser aceptada, además de la garantía anterior deberá de constituir una garantía complementaría de un 5% del importe de adjudicación, de tal forma que la garantía total alcanzará el 10% del precio del contrato.
Epea, berme hori jartzeko, hamar egun baliodunekoa izango da, eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Bermeak Udal-Diruzaintzan jarri beharko dira eta SPKL-ren 108 artikuluak xedaturiko ondorengo eran aurkeztu ahalko dira:		El plazo para la constitución de la citada garantía será de diez días hábiles contados a partir del siguiente a aquel en que el licitador que haya presentado la mejor oferta hubiera recibido el requerimiento. Las garantías se depositarán en la Tesorería Municipal y se podrán prestar conforme al artículo 108 de la LCSP 2017, en alguna de las siguientes formas:

a) Dirutan edo Zor Publikoko balioetan, kasu bakoitzean, Lege hori garatzen duten arauetan ezarritako baldintzen arabera. Eskudirua eta idazpena duten balioen ibilgetze-ziurtagiriak erakunde hauetakoren batean gordailutu behar dira: Gordailuen Kutxa Nagusian, edo Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren ordezkaritzetako sukurtsaletan, edo kontratugile izan eta ondorioen onuradun diren autonomia-erkidegoetako edo toki-entitateetako haren pareko kutxa edo establezimendu publikoetan, Lege hori garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan.		a) En efectivo o en valores de Deuda Pública, con sujeción, en cada caso, a las condiciones establecidas en las normas de desarrollo de esta Ley. El efectivo y los certificados de inmovilización de los valores anotados se depositarán en la Caja General de Depósitos o en sus sucursales encuadradas en las Delegaciones de Economía y Hacienda, o en las Cajas o establecimientos públicos equivalentes de las Comunidades Autónomas o Entidades locales contratantes ante las que deban surtir efectos, en la forma y con las condiciones que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.
b) Abal bidez. Abal hori aipatutako Legea garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan mailegatu beharko dute Espainian jarduteko baimena duten bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek edo elkarren bermerako sozietateek. Abala aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetako batean gordailatu behar da.		b) Mediante aval, prestado en la forma y condiciones que establezcan las normas de desarrollo de esta Ley, por alguno de los bancos, cajas de ahorros, cooperativas de crédito, establecimientos financieros de crédito y sociedades de garantía recíproca autorizados para operar en España, que deberá depositarse en los establecimientos señalados en la letra a) anterior.
c) Kauzio-aseguruaren kontratu bidez. Kontratu hori aipatutako Legea garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan egin beharko du arlo horretan jarduteko baimena duen entitate aseguratzaile batek. Aseguruaren ziurtagiria aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetako batean aurkeztu behar da.		c) Mediante contrato de seguro de caución, celebrado en la forma y condiciones que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan, con una entidad aseguradora autorizada para operar en el ramo. El certificado del seguro deberá entregarse en los establecimientos señalados en la letra a anterior.
Bermea dirutan jartzen bada, horri dagokion zenbatekoa Kutxabank-eko 2095 5033 10 1060155172 zenbakiko kontu korrontean sartuko da, eta transferentzia-agiriaren kopia bat eramango da Udaleko Diruzaintzara. Horrekin batera, kontu korronte baten zenbakia ere aurkeztuko da, bermearen itzulketa egiteko.		En caso de constituirse en metálico, el importe de la garantía se ingresará en la cuenta corriente número 2095 5033 10 1060155172 de Kutxabank, entregando una copia de la transferencia en la Tesorería junto a un número de cuenta corriente donde se desee que se devuelva la garantía.
Kontratistari egotzi beharreko arrazoiengatik ez badu emandako epean behin betiko bermea jartzea, Udalak ez dio esleipena emango, eta ulertuko da lizitatzaileak erretiratu egin duela bere eskaintza; jarraian, zigor gisa, lizitazioaren oinarri aurrekontuaren %3 eskatuko zaio, BEZik gabe		De no constituir la garantía definitiva en el plazo otorgado por causas imputables al contratista, el Ayuntamiento no efectuará la adjudicación a su favor, y se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad.

Kontratuaren aldaketa baten ondorioz kontratuaren prezioa aldatzen bada, aldatutako prezio berriarekin dagokion proportzioa izan dezan, bermea ere birmoldatu egin beharko da hamabost eguneko epean, enpresariari aldaketa akordioa jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.		Cuando como consecuencia de una modificación del contrato, experimente variación el precio del mismo, deberá reajustarse la garantía, para que guarde la debida proporción con el nuevo precio modificado, en el plazo de quince días contados desde la fecha en que se notifique al empresario el acuerdo de modificación.
Bermea ez da itzuli edota suntsituko kontratua modu egokian gauzatu arte eta bermearen epea bukatu arte.		La garantía no será devuelta o cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato.
Bermeak SPKLko 110 artikuluan ezartzen dituen kontzeptuengatik erantzungo du.		Esta garantía responderá de los conceptos incluidos en el artículo 110 LSCP 2017.
Bermea itzuliko da, bai guztia edo, hala badagokio, zati bat, SPKL-ren 111. artikuluan xedaturikoaren arabera, bermearen epea amaitutakoan eta esleipendunak kontratuaren obligazio guztiak bete dituenean.		La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 del LCSP 2017, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por la empresa adjudicataria todas sus obligaciones contractuales.
11. KONTRATATZAILEAREN PROFILA		**11. PERFIL DEL CONTRATANTE**
2017ko SPKLko 63. artikuluari jarraikiz, toki-erakundearen kontratuzko jarduerari buruzko informazioa gardena eta eskuragarria izan dadin ziurtatze aldera, kontratatzailearen profilaren bitartez haren kontratuzko jarduerari buruzko informazioa emango da, kontratu honi dagozkion iragarkiak, agiri hau, preskripzio teknikoen pleguak eta proiektua barne. Kontratua esleitu aurretik, kontratuaren xedea zehatz-mehatz zehazten duen proiektua egin, berrikusi, onartu eta birplanteatu behar da. Proiektua toki-erakundean eskumena duen kontratazio-organoak onetsi behar du.		Conforme al artículo 63 de la LCSP 2017 y con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a la actividad contractual de esta Entidad Local, se facilita a través del Perfil de Contratante de la misma toda la información relativa a su actividad contractual, incluyendo los anuncios relativos al presente contrato, el presente pliego, pliego de prescripciones técnicas y el proyecto. Con carácter previo a la adjudicación del contrato deberá haberse elaborado, supervisado, aprobado y replanteado el proyecto que defina con precisión el objeto del contrato, aprobación que corresponde al órgano de contratación competente de la Entidad Local.
Profilak informazio hau du: toki-erakundeko kontratazio-organoarekin harremanetan aritzeko behar den informazio orokorra, topaguneak, telefono zenbakiak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, iragarkiak eta baldintzen agiriak eta egiten dituen kontratuei buruzko informazio berezia.		El Perfil incluye tanto la información de tipo general precisa para relacionarse con el órgano de contratación de la Entidad Local, como puntos de contacto, números de teléfono, dirección postal y dirección electrónica, informaciones, anuncios y pliegos de condiciones, así como la información particular relativa a los contratos que celebre.
Zestoako Udaleko kontratugilearen profilerako sarbide publikoa www.zestoa.eus webgunea da, Euskadiko Kontratazio Plataforman sartuta dagoena.		El acceso público al perfil de contratante del Ayuntamiento de Zestoa se efectuará a través de la página web www.zestoa.eus, alojado en la Plataforma de Contratación de Euskadi.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA		II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR
12. JARDUNBIDEA ETA ESLEIPEN MODUA		**12. PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN**
Kontratu hau ez dago regulazio armonizatura lotua, SPKL 2017ko 19 eta 20 artikuluetan jasotakoaren arabera jasotzen den moduan		El contrato no se encuentra sujeto a regulación armonizada y así se hace constar, de conformidad con lo señalado en los artículos 19 y 20 de la LCSP 2017.
2017ko SPKL-ren 156. artikulua eta hurrengoak jarraituz, kontratu honen esleipena **prozedura irekia** erabilita egingo da.		La adjudicación del presente contrato se realizará por el **procedimiento abierto,** de conformidad con lo previsto en el artículo 156 y siguientes de la LCSP.
Eskaintzak balioesteko eta ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza zehazteko, kontratuaren xedearekin lotura duten hainbat irizpide erabiliko dira, SPKL-ren 145. artikuluak eta baldintza agiri honen 19. klausulan ezarritakoari jarraituta.		Para la valoración de las proposiciones y la determinación de la oferta económicamente más ventajosa deberá de atenderse a varios criterios directamente vinculados al objeto del contrato, de conformidad con el artículo 145 de la LCSP y con la clausula 19 de este Pliego.
Espedientearen izapidetzea **ohikoa** izango da.		La tramitación del expediente será **ordinaria**.
13. KONTRATATZEKO GAITASUNA EGIAZTATZEA		**13. ACREDITACIÓN DE LA APTITUD PARA CONTRATAR**
Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona natural edo juridikoek, espainiar estatuko edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, kontratatzeko inolako debekurik ez badute, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen badituzte, kaudimeneko baldintzak dagokion sailkapenaren bidez ordezkatuak izan daitezkeelarik, hori nahitaezkoa denean.		Podrán presentar proposiciones las personas naturales o jurídicas, del estado español o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursos en prohibiciones para contratar, y acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional, requisitos de solvencia que serán sustituidos por la correspondiente clasificación en los casos que sea exigible.
Kontratistaren jarduteko gaitasuna, kontratatzeko inolako debekurik ez duela eta horren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala plegu honetan zehazturiko eran egiaztatu beharko dira.		La capacidad de obrar, la no concurrencia de alguna de las prohibiciones para contratar y la solvencia económica, financiera y técnica o profesional del contratista se acreditarán en la forma establecida en el presente pliego.
Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariek, ordezkari izateko ahalmena dutela frogatu beharko dute agiri bidez. Kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio.		Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad citadas para contratar.

Proposamena aurkeztu ahal izateko baldintza izango da, era berean, lizitatzaileak garatuko duen xedeak edo jarduerak harreman zuzena izatea kontratuaren xedearekin, dagozkion bere estatutuetatik edo fundazio arauetatik eratortzen denaren arabera eta behar bezala frogatuta. Halaber, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren elementu materialak eta langileak dituen antolaketa bat izan beharko du.		Será requisito, asimismo, para poder presentar oferta, que la finalidad o actividad que desarrolle el licitador tenga relación directa con el objeto del contrato, según resulte de sus respectivos Estatutos o reglas fundacionales y se acredite debidamente. Asimismo, deberá disponer de una organización con elementos materiales y personales necesarios para la ejecución del contrato.
14. PROPOSAMENAK, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO EPEA		**14. PROPOSICIONES, DOCUMENTACIÓN Y PLAZO DE PRESENTACIÓN**
Kontratazio honen espedientea, espedienteari erantsitako dokumentazio teknikoa, pleguak eta dokumentazio osagarria Zestoako Udalaren Kontratatzailearen Profilaren bidez eskuratu ahal izango dira, Euskadiko Kontratazio Publikoaren plataforman lizitazioa iragartzen denetik eta proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte.		El acceso al expediente de esta contratación, la documentación técnica unida al mismo, los pliegos y a la documentación complementaria podrá realizarse a través del Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Zestoa, a partir del anuncio de la licitación en la plataforma de Contratación Publica de Euskadi y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones.
Proposamenak bitarteko elektronikoak soilik erabiliz aurkeztuko dira, 2017ko SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunekin bat etorriz, kontratatzailearen profilean argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazitako epearen barruan.		**La presentación de proposiciones se llevará a cabo utilizando exclusivamente medios electrónicos,** de conformidad con los requisitos establecidos en la Disposición Adicional decimoquinta de las LCSP 2017, dentro del plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el Perfil del Contratante.
Proposamenak aurkezteko **epea HAMABOST (15) EGUN naturalekoa** izango da kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazio-iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 2017ko SPKLko 156. artikuluari jarraituta.		Las proposiciones deberán presentarse**, durante el plazo de QUINCE (15) DÍAS NATURALES,** , contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil de contratante conforme al artículo 156 de la LCSP 2017.
Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta bitartekoak arbitratuko dira izaera hori bermatzeko, proposamenak irekitzen diren unera arte.		Las proposiciones será secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones
Proposamenak elektronikoki aurkezteko informazio eta zehaztasun teknikoak, baita dataren zifratze eta balidatzea ere, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan sartuta daude (www.contratacion.euskadi.eus).		La información y las especificaciones técnicas necesarias para la presentación electrónica de las proposiciones, incluido el cifrado y la validación de la fecha, se encuentran alojadas en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi (www.contratacion.euskadi.eus)

Zerbitzu horiek erabiltzeak ondokoa esan nahi du: 1. Lizitatzaileak modu telematikoan prestatu eta aurkeztu behar dituela bere eskaintzak 2. Sistemak egingo duela eskaintzen zaintza elektronikoa 3. Plataformaren bitartez irekiko eta ebaluatuko dela dokumentazioa.		La utilización de estos servicios supone: 1. La presentación de ofertas de forma telemática por el licitador. 2. La custodía electrónica de ofertas por el sistema. 3. La apertura y evaluación de la documentación a través de la Plataforma.
Proposamenak bitarteko elektronikoz bidaltzea bi fasetan egin ahalko da; lehenik, proposamenaren aztarna elektronikoa igorriko da – hori jasotzearekin egintzat joko da aurkezpena ondorio guztietarako -, eta, ondore, eskaintza bera 24 orduko epean, gehienez ere. Bigarren igorpen hori ez bada adierazitako epean egiten, eskaintza erretiratutzat joko da.		El envío por medios electrónicos de las ofertas podrá hacerse en dos fases, transmitiendo primero la huella electrónica de la oferta, con cuya recepción se considerará efectuada su presentación a todos los efectos, y después la oferta propiamente dicha en un plazo máximo de 24 horas. De no efectuarse esta segunda remisión en el plazo indicado, se considerará que la oferta ha sido retirada.
Eskaintzaren aztarna elektronikoa datu-multzo bat da zeinak eskaintzaren edukiarekin argi eta garbi lotzea bermatzen duen, eta eskaintzaren edukian egon daitezkeen aldaketak detektatzea ahalbidetzen duen, hala haren osotasuna bermatuz. Espedientean txertatu beharreko dokumentuen kopia elektronikoek bete egin beharko dute ondorio horretarako indarrean dagoen administrazio prozedura erkidearen alorreko legedia, bertan ezarritako guztiekin		Se entiende por huella electrónica de la oferta el conjunto de datos cuyo proceso de generación garantiza que se relacionan de manera inequívoca con el contenido de la oferta propiamente dicha, que permiten detectar posibles alteraciones del contenido de ésta, garantizando su integridad. Las copias electrónicas de los documentos que deban incorporarse al expediente, deberán cumplir con lo establecido a tal efecto en la legislación vigente en materia de procedimiento administrativo común, surtiendo los efectos establecidos en la misma
Lizitatzaile bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu dezake. Ezin izango da aldi-baterako enpresa elkartean proposamenik egin aurretik beste bat bakarka egin bada. Baldintza hori hausten duen enpresariari atzera botako zaizkio automatikoki aurkeztu dituen proposamen guztiak.		Cada licitador no podrá presentar más de una proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha hecho individualmente o figurara en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.
Administrazio Baldintza Zehatzen Agirian xedatutakoari egokitu beharko zaizkio interesdunen proposamenak, eta haiek aurkezteak esanahi duena da enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen duela klausula edo baldintza horien guztien edukia eta orobat proiektua eta preskripzio teknikoen orria, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe.		Las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a lo previsto en el pliego de cláusulas administrativas particulares, y su presentación supondrá la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de dichas cláusulas o condiciones, así como del proyecto del pliego de prescripciones técnicas, sin salvedad o reserva alguna.

AURKEZPEN ELEKTRONIKOA		PRESENTACIÓN ELECTRÓNICA
Erabiltzaileen Laguntza Zentroa • 945 016 298 telefono zenbakia • Interneteko helbidea: http//www.contratacion.euskadi.eus • Posta elektronikoko helbidea: laguntzakpe@euskadi.eus (orriko lehiaketa elektroniko arloan)		Centro de Atención a usuarios • Teléfono 945 016 298 • Dirección de Internet: http// www.contratacion.euskadi.eus • Dirección de correo electrónico: laguntzakpe@euskadi.eus (en el área de concurso electrónico de la página)
15. LIZITATZAILEEI INFORMAZIOA		**15. INFORMACIÓN A LOS LICITADORES**
Kontratazio organoak 2017ko SPKL 138.3 artikuluak xedaturiko jarraituz, lizitazio prozeduran interesdunak informazio gehigarria edo osagarria eskatzen badu, Administrazio kontratatzaileak, proposamenak jasotzeko ezarririko muga-eguna baino gutxienez sei egun lehenago eman beharko du, betiere eskaera hori aurreko datarekiko gutxienez 12 egun lehenago aurkezten bada.		El órgano de contratación proporcionará a todos los interesados en el procedimiento de licitación, a más tardar 6 días antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas, aquella información adicional sobre los pliegos y demás documentación complementaria que estos soliciten, a condición de que la hubieran pedido al menos 12 días antes del transcurso del plazo de presentación de las proposiciones (art. 138.3 LCSP 2017).
16. NOLA AURKEZTU ESKAINTZAK		**16. FORMA DE PRESENTACIÓN DE LAS OFERTAS**
Lizitatzaileek **BI ARTXIBO ELEKTRONIKO (A eta B)** aurkeztu beharko dituzte:		Las proposiciones para tomar parte en la licitación se presentarán en **DOS ARCHIVOS ELECTRÓNICOS (A y B).**
Artxibo bakoitzean, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta noren izenean sinatzen duen adieraziko dira, eta hiru artxiboek sinatuta egon beharko dute.		En cada archivo se indicará la denominación de la empresa, nombre y apellidos de quien firme la proposición y el carácter con que lo hace, debiendo estar los tres archivos firmados.
Artxiboen izenak ondokoak dira:		La denominación de los archibos es la siguiente:
➔ **«A» ARTXIBO ELEKTRONIKOA: Dokumentazio administratiboa** ➔ **«B» ARTXIBO ELEKTRONIKOA: Eskaintza ekonomikoa eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen beste irizpide batzuk.**		➔ **ARCHIVO ELECTRÓNICO «A»: Documentación administrativa** ➔ **ARCHIVO ELECTRÓNICO «B»: Proposición económica y otros criterios cuantificables de forma automática.**
«A» ARTXIBO ELEKTRONIKOA DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA		**ARCHIVO ELECTRÓNICO «A» DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA**
1. Proposamena aurkezten duen pertsonaren **NANa**, dela bere izenean, dela beste pertsona fisiko edo juridiko baten ordezkari gisa.		**1. DNI** de la persona que presente la proposición, ya en nombre propio, ya en representación de otra persona física o jurídica.

2. Enpresa lizitatzaileek kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko, **EUROPAR BATASUNEKO KONTRATAZIOKO AGIRI BAKARRA (EKAB)** aurkeztu beharko dute, 2016/7 Araudiak (EB) (aipaturiko zuzentarauaren 59.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko egindakoa) xedaturikoa; dena den, konpromisoa agertu beharko dute dokumentazioa aurkezteko baldin eta esleipendun suertatzen badira edota hura eskatzen bazaio.		**2.** Las empresas licitadoras tendrán que presentar para acreditar la capacidad y solvencia para contratar, el **DOCUMENTO EUROPEO ÚNICO DE CONTRATACIÓN (DEUC)** establecido por el Reglamento (UE) n.º 2016/7 (dictado en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 59.2 de la mencionada Directiva), comprometiéndose a presentar la documentación en caso de ser propuesta como adjudicataria o de ser requerida para ello.
EKAB-en inprimaki normalizatua kontratazio profilean egongo da eskuragarri.		El formulario normalizado del DEUC está disponible en el perfil del contratante.
Behar bezala bete ondoren, dokumentu hori sinatu eta A artxibo elektronikoan sartu behar da		Una vez debidamente cumplimentado, dicho documento deberá firmarse incluirse en el archivo electrónico A.
Kontratazio Administratiboko Aholku Batzordeak, 2016ko apirilaren 6ko Ebazpenaren bidez (2016ko apirilaren 8ko EAO), hainbat jarraibide xedatzen ditu EKAB inprimakia betetzeko.		La Junta Consultiva de Contratación Administrativa, mediante Resolución de 6 de abril de 2016, publicada en el BOE n.º 85, de 8 de abril del 2016, establece unas orientaciones para el cumplimiento del formulario normalizado DEUC.
Enpresariak beste enpresa batzuen kaudimen eta bitartekoetara jotzen duenean, 2017ko SPKLren 75. artikuluarekin bat, haietako bakoitzak Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) aurkeztu beharko du, behar bezala beteta.		Cuando el empresario recurra a la solvencia y medios de otras empresas de conformidad con el artículo 75 de la LCSP 2017, cada una de ellas deberá presentar el Documento Europeo Único de Contratación (DEUC) debidamente cumplimentado.
Enpresak beste erakunde batzuen ahalmenetara jotzen duenean, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko du, erakusteko halako bitartekoak izango dituela.		Cuando la empresa recurra a las capacidades de otras entidades, deberá presentar compromiso por escrito de dichas entidades para demostrar que va a disponer de tales recursos.

3. Bestalde, **hala badagokio**, aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzeko konpromisoa jasotzen duen dokumentu edo agiria; proposamena enpresa-elkarte batek egiten badu, elkarte horretan sartuta lehiatu nahi duten enpresaburuek hura osatzen dutenen izenak eta beste gorabeherak adieraziko dituzte, hala nola bakoitzak zer-nolako parte-hartzea daukan hartan eta guztiek beren gain hartzen dutela aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromisoa, esleipena egokitzen bazaie. Era berean, enpresek elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar bat aukeratu beharko dute, askietsitako ahalordez hornitua, kontratua iraungi bitartean hartatik eratortzen diren eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko, inola ere baztertu gabe kobrantza eta pagamendu handiak egiteko ahalorde mankomunatuak emateko aukera.		**3.** Por otra parte, **en su caso**, documento de compromiso de constituir una Unión Temporal de Empresas; cuando la proposición se formule por una unión temporal de empresas, deberá presentarse un documento firmado por los representantes legales de todas ellas en el que se indiquen los nombres y circunstancias de los empresarios que lo suscriban, la participación de cada uno de ellos en la misma, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal de empresas en caso de resultar adjudicatarias, de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del articulo 69 LCSP 2017. Asimismo, las empresas deberán designar a un único representante o apoderado, dotado de poder suficiente, para el cumplimiento de todos los derechos y obligaciones que se deriven del contrato hasta su extinción, incluyendo en todo caso la posibilidad de otorgar poderes mancomunados para realizar grandes cobros y pagos.
Horrez gain, ABEE batean parte hartzen duen enpresa bakoitzak Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) aurkeztuko du, behar bezala beteta.		Además, cada uno de las empresas que concurra en una UTE aportará un Documento Europeo Único de Contratación (DEUC) debidamente cumplimentado.
4.- «Lizitatzailearen datuak» izeneko orria. Udalak egin beharreko jakinarazpenen ondorioetarako, ordezkariaren eta harremanetarako pertsonaren izen-abizenak, erakunde lizitatzailearen izena eta IFZ, helbide osoa, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa adierazi behar ditu. Dokumentu hori I. Eranskinaren arabera beteko da.		**4.- Hoja denominada "Datos del licitador".** Que a efectos de las comunicaciones que el Ayuntamiento deba realizar, haga constar el nombre y apellidos del representante y persona de contacto, denominación de la entidad licitadora con su NIF, dirección completa,número de teléfono y dirección de correo electrónico. Dicho documento se rellenará de acuerdo al Anexo I
Kontratazio organoak eta kontratazio mahaiak lizitatzaileei eskatu ahalko die aurkez ditzatela justifikazio dokumentu guztiak edo parte bat, uste dutenean arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraldiari edo sinesgarritasunari buruz, beharrezkoa denean prozedura ondo gara dadin, eta, nolanahi ere, kontratua esleitu baino lehen.		El órgano o la mesa de contratación podrán pedir a los licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.
Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen direla ikusteko une erabakigarria, proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da eta kontratua hobetzeko unean jarraitu beharko dute.		El momento decisivo para apreciar la concurrencia de los requisitos de capacidad y solvencia exigidos para contratar con la Administración será el de finalización del plazo de presentación de las proposiciones y subsistir en el momento de perfección del contrato.

«B» ARTXIBO ELEKTRONIKOA ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN BESTE IRIZPIDE BATZUK		**ARCHIVO ELECTRÓNICO «B» PROPOSICIÓN ECONÓMICA Y OTROS CRITERIOS CUANTIFICABLES DE FORMA AUTOMÁTICA**
Era automatikoan zenbatu daitezkeen esleitzeko irizpideei buruzko dokumentazioa. Zehazki:		Documentación relativa a los criterios de adjudicación cuantificables de forma automática, en concreto:
• **II. Eranskinean jasotako ereduaren arabera: proposamen ekonomikoa eta hornikuntza-epea murriztea**		• **Proposición económica y reducción del plazo de suministro ajustada al modelo del Anexo II.**
Eskaintza ekonomikoa karaktere argiekin edo makinaz idatzita aurkeztu behar da. Beraz, toki-erakundeak eskaintza aintzat hartzeko oinarrizkotzat jotzen duen edozer argi eta garbi ulertzeko hutsik, akatsik edo ezabaketarik badu, eskaintza ez da onartuko.		La oferta económica se presentará en caracteres claros o escrita a máquina, de modo que serán excluidas aquéllas que tengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer, claramente, lo que la Entidad Local estime fundamental para considerar la oferta.
17. KONTRATAZIO MAHAIA		**17. MESA DE CONTRATACIÓN**
Kontratazio mahaia honela osatuko da:		La Mesa de Contratación estará integrada del modo siguiente:
EPAIMAHAIBURUA: Zestoako Udaleko Alkate-Lehendakaria, edo bere ordezko zinegotzia.		**PRESIDENTE**: El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zestoa o el concejal en quien delegue.
BOKALAK: - Udal Idazkari-kontuhartzailea edo bere ordezko funtzionarioa. - Udal arkitekto teknikoa edo bere ordezkoa funtzionarioa. - Zestoako Udaleko Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikaria edo horren ordezko funtzionarioa.		**VOCALES:** - El Secretario - Intervertor del Ayuntamiento o funcionario en quien delegue. - Arquitecta técnico municipal o funcionario en quien delegue. - Técnico de Administración General de Secretaria del Ayuntamiento de Zestoa o funcionario en quién delegue.
IDAZKARIA: - Zestoako Udaleko Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikaria edo horren ordezko funtzionarioa.		**SECRETARIA:** - Técnico de Administración General de Secretaria del Ayuntamiento de Zestoa o funcionario en quién delegue.
Halaber, udal teknikari guztiek parte hartu ahal izango dute Kontratazio Mahaian, baldin eta Mahaiak, aholkularitza lanak egiteko, horien parte hartzea eskatzen badu.		Podrán asistir, además, todos/as aquellos/as técnicos/as municipales cuya presencia sea solicitada por la Mesa para ejercer labores de asesoramiento.
Udal talde politikoetako bozeramaileak gonbidatu gisa, ahotsarekin eta botorik gabe, Kontratazio Mahaiko bilkuretan parte hartzeko aukera izango dute.		Los portavoces de los grupos políticos municipales podrán participar como invitados, con voz pero sin voto, en las sesiones de la Mesa de Contratación.

Kontratazio-organoak hartzen dituen ebazpenak exekutiboak dira, dagokion auzi organoaren aurrean kontratistak duen aurkaratzeko eskubidearen kalterik gabe.		Las resoluciones adoptadas por el órgano de contratación son inmediatamente ejecutivos, sin perjuicio de la potestad de impugnación que tenga el contratista frente al órgano judicial correspondiente.
18. AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA		**18. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES**
Proposamenak aurkezteko epea iragan ondoren, Kontratazio mahaiak lizitatzaileek A artxibo elektronikoan aurkeztutako dokumentazio orokorra kalifikatuko du, publikoa izango ez den bilkuran, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten dena jarraiki.		Una vez vencido el plazo de presentación de las proposiciones, la Mesa de Contratación procederá a la calificación de la documentación general presentada por los licitadores en el archivo electrónico A, en sesión cerrada al público, procediendo para ello conforme al artículo 81 y siguientes del Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, regulador del Reglamento General de la Ley de Contratos del Sector Público.
Kontratazio Mahaiak ondokoa egiaztatuko du: lizitatzaileek A artxibo elektronikoan aurkeztu dituzten ardurapeko aitorpenak behar den moduan izenpetuta daudela eta formaren ikuspegitik eta ikuspegi materialetik ere, legez eta araudiz aplikagarri diren arauek galdatutakoa ere betetzen dutela.		La Mesa de Contratación comprobará que las declaraciones responsables presentadas por los licitadores dentro del archivo electrónico A, están válidamente firmadas y cumplen desde el punto de vista formal y también material, con lo exigido por las normas legales y reglamentarias que son de aplicación.
Kontratazio mahaiak aurkeztutako ardurapeko aitorpenetan hutsegite materialak daudela ikusten badu, posta elektronikoa erabiliz jakinaraziko die interesatuei, eta 3 lanegun baino gehiagokoa izango ez den epea emango du, lizitatzaileek akatsak zuzen ditzaten. Dokumentazioak zuzendu ezin daitezkeen akats nabarmenak edo hutsegite materialak badituzte, proposamena baztertu egingo da.		Si la Mesa de Contratación observare defectos materiales en las declaraciones responsables presentadas, lo comunicará por correo electrónico a los interesados, concediendo un plazo no superior a 3 días hábiles para que subsanen el error. Si la documentación contiene defectos sustanciales o deficiencias materiales no subsanables, se rechazará la proposición.
Kontratazio-mahaiak, duten dokumentazioa kalifikatu ondoren eta, egokituz gero, aurkeztutako dokumentazioan atzemandako akatsak edo hutsegiteak zuzendu ondoren, hautapen-irizpideak betetzen dituzten enpresak zein diren zehaztuko ditu, eta berariaz esango du lizitazioan zein onartu diren, eta zein eta baztertzearen arrazoiak.		La Mesa de Contratación, una vez calificada la documentación, y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones de la documentación presentada, procederá a determinar las empresas que se ajusten a los criterios de selección, con pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación y los rechazados de la misma, así como sobre las causas de rechazo.
Eskatutako agiriren bat ez aurkezteak edo eskatu ez bezala aurkezteak berekin ekarriko du Mahaiak behin betiko ez onartzea.		La no presentación de alguno de los documentos exigidos o su presentación en forma distinta a la requerida dará lugar a la no admisión definitiva por la Mesa.

Proposamenak ebaluatzean, plegu honetako 19. klausulan azaldutako esleipen-irizpideak kontuan hartuko dira.		A la hora de evaluar las ofertas, se tendrán en cuenta los criterios de adjudicación recogidos en la clausula 19 de este pliego.
Azkenik, Kontratazio-mahaiak Kontratugilearen Profilean eta onartutako lizitatzaileei bidalitako komunikazioan adierazitako leku, egun eta orduan "B" artxibo elektronikoa irekiko du jendaurrean; hau da, proposamen ekonomikoaren eta hornikuntza-epea murriztearen inguruko dokumentazioa daukana. Proposamenak irakurri ondoren, mahaiak haien puntuazioa egingo du, plegu honetan esleitzeko adierazitako irizpidearen bidez.		Finalmente, la Mesa de Contratación abrirá el archivo electrónico "B", es decir, el sobre que contiene la documentación sobre la proposición económica y reducción del plazo de suministro, en acto público desarrollado en el lugar, día y hora indicados en el Perfil del Contratante y en la comunicación que se curse a las empresas licitadoras admitidas. La Mesa puntuará las proposiciones una vez las haya leído, según los criterios de valoración indicados en este pliego.
Ez dira onartuko proposamenak:		No se aceptarán aquellas proposiciones que:
• Administrazioak behartuta jakin beharreko datuak ikustea eragozten duten kontraesanak, gabeziak, akatsak edo zirriborroak badituzte. • Aztertua eta onartu izan den dokumentazioarekin bat ez badatoz. • Lizitazioaren gehienezkoa gainditzen badute. • Errematearen zenbatekoan akats nabarmena baldin badute. • Baldintza agiri honen I. Eta II. Eranskinean ageri den proposamen eredutik asko aldentzen badira.		• Tengan contradicciones, omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta. • Aquéllas que carezcan de concordancia con la documentación examinada y admitida. • Excedan del tipo máximo de licitación. • Comporten error manifiesto en el importe del remate. • Las que varíen sustancialmente el modelo de proposición establecido que figura como Anexo I y II a este Pliego.
Txosten teknikoak ikusita, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari esleitzeko proposamena luzatuko dio. Esleipen-irizpideak aurkeztu diren proposamenetan aplikatzearen ondorioz lortutako emaitza, akta, esleipen-proposamenarekin batera eskuratutako dokumentazioa eta bidezkotzat jotako oharpenak helaraziko dizkio Kontratazio-mahaiak Kontratazio-organoari.		Vistos los informes técnicos, la Mesa de Contratación hará llegar al Órgano de Contratación el resultado de aplicar los criterios de valoración a las proposiciones presentadas, el acta, la documentación recabada junto con la propuesta de adjudicación y todas las observaciones que se consideren oportunas.
Kontratazio-organoak bi erabaki hauetako bat hartzeko ahalmena izango du: kontratua kalitate prezio erlazio hoberenari adjudikatzea; edo hutsik, esleipenik gabe utz dezake lizitazioa, betiere erabakia esleipenerako irizpide horien arabera arrazoituta.		El Órgano de Contratación podrá decidir entre estas dos opciones: adjudicar el contrato a la mejor propuesta relación calidad-precio; o declarar desierta la licitación, sin adjudicar, justificando siempre su decisión en base a los criterios mencionados.

Esleipen-proposamenak ez du administrazioarekiko inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde. Hala ere, kontratazio-organoak ez badu esleitzen kontratua egindako proposamenaren arabera, erabakia arrazoitu beharko du.		La propuesta de adjudicación no supondrá ningún derecho del licitador propuesto ante la Administración. No obstante, si el órgano de contratación no adjudicara el contrato en base a la propuesta realizada, deberá justificar su decisión.
Ez da bidezkoa izango kalitate prezio erlazioan proposamen hoberena aurkezten duenari adjudikatzea, baldin eta, kontratazio-organoak ondo oinarritutako arrazoiak baditu pentsatzeko proposamena ezingo dela bete, ohiz kanpoko edo neurriz gaineko balioak jasotzen dituelako.		No procederá la adjudicación al licitador que realice la mejor propuesta relación calidad-precio si el órgano de contratación tuviera razones fundadas para considerar que la propuesta no se podrá ejecutar por contener valores anormales o desproporcionados.
Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 85. artikuluan araututako kasuetan dauden eskaintzez esango da ohiz kanpoko edo neurriz gaineko balioak dituztela.		Se considerarán ofertas con valores anormales o desproporcionados aquellos casos incluidos en los supuestos regulados por el artículo 85 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
Neurriz kanpokoa edo ezohikoa dela jo daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, entzunaldia emango zaio hura aurkeztu duen lizitatzaileari, eskaintzaren balorazioa azal dezan eta haren baldintzak zehatz ditzan, bereziki, ondorengo gaiei dagokienez: kontratuaren exekuzio prozesuak ahalbidetzen duen aurreztea, onartutako irtenbide teknikoak eta prestazioa betetzeko dituen aldeko aparteko baldintzak, proposatutako prestazioen originaltasuna, prestazioa gauzatuko den lekuan enpleguaren eta lan baldintzen babesari buruz indarrean dauden xedapenak errespetatzea, edo Estatuaren aldetik laguntzaren bat jasotzeko aukera.		Cuando se identifique una proposición que pueda ser considerada desproporcionada o anormal, se le dará audiencia a la empresa licitadora que haya presentado para que justifique la valoración de la oferta y precise las condiciones de la misma, en particular en lo que se refiere al ahorro que permita el procedimiento de ejecución del contrato, las soluciones técnicas adoptadas y las condiciones excepcionalmente favorables de que disponga para ejecutar la prestación, la originalidad de las prestaciones propuestas, el respeto de las disposiciones relativas a la protección del empleo y las condiciones de trabajo vigentes en el lugar en que se vaya a realizar la prestación, o la posible obtención de una ayuda del Estado.
Lizitatzaileak, haren eskaintza anormalki baxutzat jotzeko arrastoak badaude, argudio zurigarria aurkez dezake, non ohartaraziko duen erabaki duela etekin industrial txikiagoa eskuratzea, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuari esleitutakoa baino.		El licitador, en el caso de que se hayan apreciado indicios que permitan considerar su oferta como anormalmente baja, podrá presentar argumentación justificativa en la que advierta su opción de obtener un menor beneficio industrial respecto al consignado en el presupuesto base de licitación.
Ez-ohiko edo neurriz kanpoko balioak direla-eta proposamenak ez direla beteko uste izateko parametro objektibotzat hartuko da indarrean dagoen hitzarmen kolektiboan lanbide kategoria bakoitzeko agertzen diren gutxieneko soldaten kostuak baino prezio txikiagoa adieraztea.		Se considera un parámetro objetivo para apreciar que las proposiciones no pueden ser cumplidas como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados, la indicación de un precio inferior a los costes salariales mínimos por categoría profesional, según el Convenio Colectivo vigente.

Lizitatzaileak emandako azalpenak eta aurreko paragrafoan aipatutako txostenak ikusirik, kontratazio organoak uste badu ezohiko edo neurriz kanpoko balioak direla-eta eskaintza hori bete-ezina dela, orduan, eskaintza sailkapenetik kanpo utziko du eta esleipena Administrazioaren iritziz ongi gauzatuko diren eta ezohikoak edo neurriz kanpokoak ez diren proposamenen artean, sailkapen ordenari jarraituz, kalitate prezio erlazioan onena den hurrengo proposamenari egingo dio.		Si el órgano de contratación, considerando la justificación efectuada por los licitadores y los oportunos informes técnicos, estimase que la oferta no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados, las excluirá de la clasificación y acordará la adjudicación a favor de la mejor propuesta calidad-precio, de acuerdo con el orden en que hayan sido clasificadas, que se estime pueda ser cumplida a satisfacción de la Administración y que no sea considerada anormal o desproporcionada.
19. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK		**19. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN**
Hona hemen kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren eskaintzak balioesteko irizpideak, garrantzia handiena duenetik txikiena duenera zerrendatuta, eta esleitzen zaien haztapenaren arabera:		Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del procedimiento abierto relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye son los siguientes:
A) AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (100 puntu)		A) **CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA (100 puntos)**
1.- Eskaintza ekonomikoa. Kontratu osoari dagokion eskainitako prezioa: gehienez 80 puntu *(B artxibo elektronikoan sartu beharrekoa):*		**1.- Oferta económica. Precio ofertado para la ejecución de la totalidad del contrato: máximo 80 puntos (a incluir en el archivo electrónico B)**
Proposamen ekonomikoa balioesteko, ondoren deskribatzen den formula aplikatuz kalkulatuko da puntuazioa:		Para la valoración de la propuesta económica, la puntuación en cada uno de los casos se calculará aplicando lel siguiente criterio:
PREZIORIK ONENA (80 PUNTU). Eskaintza ekonomiko onenari puntuazio handiena emango zaio eta gainerakoak proportzionalki kalkulatuko dira, formula honen arabera: **Po = PM *(Oe/Of)** **Po: Lortutako puntuazioa** **Of: Egindako eskaintza** **Pm: Gehienezko puntuazioa (80 puntu)** **Oe: Eskaintza merkeena**		**MEJOR PRECIO (80 PUNTOS).** Se otorgará la máxima puntuación a la mejor oferta económica, calculando proporcionalmente el resto, de acuerdo a la siguiente formula: **Po = PM *(Oe/Of)** **Po: Puntuación Obtenida** **Of: Oferta realizada** **Pm: Puntuación máxima posible (80ptos)** **Oe: Oferta más económica**
2.- Hornidura-epea murriztea: 20 puntu (B artxibo elektronikoan sartu beharrekoa)		**2.- Reducción del plazo de suministro: 20 puntos** (a incluir en el archivo electrónico B)

Lizitatzaileek proposatutako hornikuntza epearen murrizketa, hala badagokio, egun natural osoetan adieraziko da, eta gehieneko puntuazioa emango zaio murrizketarik handiena eskaintzen duen lizitatzaileari, 10 egun naturaletik beherako denbora-murrizketak baloratuko dira. Egun natural bakoitzeko murrizketagatik 2 puntu emango dira.		La reducción del plazo de suministro propuesta por los licitadores, en su caso, se expresará en días naturales completos, otorgándose la máxima puntuación al licitador que ofrezca la mayor reducción. Se valorarán las reducciones en el tiempo por debajo de los 10 días naturales. Por la reducción de cada día natural se otorgarán 2 puntos
20. DOKUMENTAZIOA ERREKERITZEA		**20. REQUERIMIENTO DE LA DOCUMENTACIÓN**
Kontratazio-organoak kalitate prezio erlazioan proposamen hoberena egiten duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua egingo dio aginduzko honako agiri hauek aurkezteko gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:		El licitador que haya presentado la mejor propuesta calidad precio será requerido por el órgano de contratación para que, en plazo máximo de diez (10) días hábiles, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la siguiente documentación justificativa:
1.- Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzeko agiriak. Nortasuna honela egiaztatuko da:		**1.- Documentos acreditativos de la personalidad jurídica del empresario.** Para acreditar la personalidad deberán cumplirse los siguientes requisitos:
a.1. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eratze-eta, hala egokituz gero, aldatze-eskrituraren bidez, Merkataritza Erregistroan izena behar bezala emanda, eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez, aplika dakiokeen merkataritza-legediaren arabera izen-ematea galdagarria bada. Hala izango ez balitz, jarduteko gaitasuna eraketa-eskrituraren, estatutuen edo sorrera-aktaren bidez bermatuko da. Agiri horretan jasota egongo dira haren jarduera arautzen duten arauak, behar balitz, dagokion erregistro ofizialean erregistratuak.		**a.1.** Si el licitador fuera persona jurídica, la acreditación se hará mediante presentación de la escritura de constitución o, en su caso, de modificación, inscrita en el Registro Mercantil, y mediante el número de identificación fiscal, cuando este requisito fuere exigible conforme a legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional. En dicho documento deberán constar, si así se requiriese, las normas por las que se regula su actividad, inscritas en el registro oficial correspondiente.
Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu espainiarrak ez badira, lanbide erregistroren batean erregistratuta daudela egiaztatu beharko dute, estatu horretako legediak baldintza hori eskatzen badu.		La capacidad de obrar de los empresarios no españoles de Estados miembros de la Unión Europea se acreditará mediante comprobante de su inscripción en algún registro profesional, si así lo exige la legislación de dicho estado miembro.
Atzerriko gainerako enpresariek enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo kontsuletxeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute.		De los demás empresarios extranjeros, con informe de la Misión Diplomática Permanente de España en el Estado correspondiente o de la Oficina Consular en cuyo ámbito territorial radique el domicilio de la empresa.

a.2. Lizitatzaileak bere izenean badihardu, nortasun-agiri nazionala edo dagokion estatuko baliokidea aurkeztu beharko du.		**a.2.** El licitador que actúe en su propio nombre deberá presentar su documento nacional de identidad o el documento equivalente del estado correspondiente.
2.- Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak: Proposamenak ez badu lizitatzaileen izenperik, eskaintza izenpetu duenaren edo izenpetzen dutenen alde luzatutako ahalordea sartu behar da, ahaldunen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eskuetsiarekin batera.		**2.- Documentos acreditativos de la representación**: cuando la proposición no aparezca firmada por los licitadores deberá incluirse el poder otorgado a favor de quien o quienes suscriban la proposición junto con una copia auténtica del Documento Nacional de Identidad del o los apoderados.
3.- Lizitatzailearen kaudimen ekonomikoa egiaztatzen duten agiriak, honako bide hau erabiliz egiaztatuko dira:		**3.- Documentos acreditativos de la solvencia económica del licitador, se acreditará al menos por el siguientes medios:**
a) Lizitatzailearen urteko negozio bolumenaren adierazpena, amaitu diren azken hiru urteetatik onena izan den ekitaldiari dagokiona. Gutxieneko kopurua kontratuaren balio zenbatetsiaren % 150 izango da.		a) Declaración sobre el volumen anual de negocios del licitador referido al año de mayor volumen de negocio de los tres últimos concluidos. Importe mínimo exigido será 150% del valor estimado del contrato.
4.- Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiria. Honako agiri hauek aurkeztuz egiaztatu beharko da:		**4.- Acreditación de la solvencia técnica o profesional.** Deberá acreditarse con la presentación de la siguiente documentación:
• **Azken hamar (3) urteetan egindako zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda**, kontratuaren xedea osatzen dutenen izaera berekoak edo antzekoak, eta zerbitzu horien zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adierazita.		• **Relación de los principales servicios efectuados en los últimos diez (3) años,** de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato, en la que se indique el importe, la fecha y el destinatario, público o privado de los mismos.
5.- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak betetzeari dagokionez egunean dagoelako adierazpena ere, inola ere alde batera utzi gabe esleipena egokituko zaion enpresaburuak hura gauzatu baino lehen aurkeztu beharko duela aipatutako betebehar horiek betetzeari dagokionez egunean dagoela egiaztatzeko dokumentazioa.		**5.- Declaración de hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias según las disposiciones en vigor, así como de estar al día en sus obligaciones con la Seguridad Social,** incluyendo en todo caso la documentación que acredite encontrarse al corriente en el cumplimiento de dichas obligaciones, que deberá ser presentada por el empresario adjudicatario antes de que se produzca la adjudicación.
6.- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzea, alta aurkeztuz, indarrean den ekitaldiari badagokio, edota Jardueren gaineko Zergaren azken ordainagiria, gainerakoetan; eta bi egoeratako edozeinetan, aipatutako zergaren matrikulan baja eskatu ez izanaren erantzukizunpeko aitorpena.		**6.- Acreditación de estar dado de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas**, en el epígrafe correspondiente al objeto del contrato, presentando el documento de alta correspondiente al ejercicio en vigor, o el último recibo del Impuesto sobre Actividades en los demás casos, y, en cualquier caso, declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado impuesto.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda duten lizitatzaileek erregistroaren ardura duen letratuak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, indarrean dagoelako adierazpenarekin batera, 1.-, 2.-, 4.- eta 5.- ataletan eskatutako dokumentazioaren ordez, eta bere kasuan, sailkapenarena, **betiere dokumentazioan inolako aldaketarik ez bada eman, eta hori eman bada zirkunstantzia hori jasota utzi beharko da ardurapeko aitorpen baten bidez.**		Aquellos licitadores que se encuentren inscritos en el Registro Oficial de Empresas Clasificadas, regulado por el Decreto 12/1998, de 3 de febrero, sobre Registro Oficial de Contratistas e implantación de la Clasificación de la Comunidad Autónoma de Euskadi, podrán presentar copia compulsada del certificado expedido por el letrado responsable del registro, en sustitución de la documentación requerida en los apartados 1.-, 2.-, 4.- y 5.-, y en su caso, de la clasificación, **siempre que no hubiera habido modificaciones en la misma, haciendo constar esa circunstancia mediante declaración responsable.**
Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzio ziurtagiriak, SPKLren 96. artikuluan xedaturiko efektuak izango ditu.		El certificado de inscripción en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Estado, tendrá los efectos establecidos en el artículo 96 LCSP 2017.
Jatorrizko dokumentuak aurkeztu ahal izango dira, edo haien kopiak, benetakoak badira indarreko legediaren arabera.		Se podrán presentar documentos originales, o bien copias de los mismos debidamente autentificados según la legislación en vigor.
2017ko SPKLren 140. artikuluak zehazturiko aurkezturiko agirietan akats materialik atzematen bada, lizitatzaileari gehienez hiru (3) laneguneko epea emango zaio akats hori zuzentzeko.		Si se observaren defectos materiales en la documentación presentada a tenor del artículo 140 del LCSP 2017, se concederá un plazo no superior a tres (3) días hábiles para que el licitador lo subsane.
7.- Plegu honetan adierazitako behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen agiria.		**7.-** Documento acreditativo de haber constituido la garantía definitiva que se recoge en este pliego.
Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da, eta dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordenari jarraituz.		De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose en este caso a recabar la misma documentación al licitador siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.
21. KONTRATUAREN ESLEIPENA		**21. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO**
Kontratazio jardunbidea garatu ostean, kontratuaren esleipena kontratazio organoak egingo du, dagozkion txosten teknikoak aztertu ondoren, proposamenak irekitzen diren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, gehienez ere bi hilabeteko epean, kontratuaren esleipena egingo du, 2017ko SPKLren 158.2 artikuluak xedaturikoarekin bat. Esleipena epe horretan egin ezean, enpresariak eskubidea du bere proposamena erretiratzeko eta jarritako bermea itzul dakion.		Una vez llevado a cabo el procedimiento de contratación, el órgano de contratación adjudicará el contrato una vez comprobados los informes técnicos correspondientes, en el plazo máximo de dos meses a contar desde el día siguiente al de apertura de proposiciones, tal y como establece el artículo 158.2 de la LCSP 2017. De no dictarse la adjudicación en dicho plazo el empresario tiene derecho a retirar su proposición y a que se le devuelva la garantía depositada

Esleipenaren erabaki arrazoitua, kontratazio-organoak emango du, bost (5) laneguneko epearen barruan, dokumentazioa jasotzen denetik. Gainera erabaki hori hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta kontratazio-organoaren kontratugilearen profilean (www.zestoa.eus) argitaratuko da. Hautagaiei eman beharreko informazioari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 151. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.		La adjudicación se acordará por el órgano de contratación en resolución motivada, dentro de los cinco (5) días hábiles, desde la recepción de la documentación, debiendo notificarse a los candidatos o licitadores y publicarse en el perfil de contratante del órgano de contratación (www.zestoa.eus), siendo de aplicación lo previsto en el artículo 151 LCSP 2017.
Jakinarazpenak eta publizitateak behar besteko informazioa jasoko du, interesatuei adjudikazio prozeduran erabakiaren aurka nahikoa arrazoitutako errekurtsoa jartzeko adina.		La notificación y la publicidad deberán contener la información necesaria que permita a los interesados en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficiente fundado contra la decisión de adjudicación.
Aurkeztutako proposamenak, onartuak nahiz ireki gabe baztertuak edo ireki ondoren atzera botatakoak, espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu eta errekurtsoak jartzeko epea errekurtsorik jarri gabe amaitzen denean, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesatuen eskura geratuko da.		Las proposiciones presentadas, tanto las declaradas admitidas como las rechazadas sin abrir o las desestimadas una vez abiertas, serán archivadas en su expediente. Adjudicado el contrato y transcurridos los plazos para la interposición de recursos sin que se hayan interpuesto, la documentación que acompaña a las proposiciones quedará a disposición de los interesados.
22. KONTRATUA FORMALIZATZEA		**22.FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua hamabost (15) egun baino beranduago ez da formalizatuko da, esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Kontratu bakarra izenpetuko da eta agiri hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotara jotzeko. Epe horretan, kontratua formalizatzera agertu beharko da lizitatzailea.		El contrato se formalizará en documento administrativo no más tarde de los quince (15) días, a contar desde el siguiente al de la recepción de la notificación de la adjudicación. Se formalizará un único documento y dicho documento será título suficiente para acceder a cualquier registro público. En dicho plazo, deberá comparecer el licitador para formalizar el contrato.
Esleipendunak eska dezake kontratua eskritura publikora igotzeko. Kasu horretan, eragindako gastuak bere kontura izango dira.		El contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.
Kontratua Aldi Baterako Enpresen Batasun bati esleitzen bazaio, enpresok batasun hori eratu dutela egiaztatu beharko dute, eskritura publikoan, kontratua formalizatzeko epearen barruan eta batasunari emandako IFZan.		Si el contrato fuera adjudicado a una Unión Temporal de Empresas deberán éstas acreditar la constitución de la misma, en escritura pública, dentro del plazo otorgado para la formalización del contrato y el NIF asignado a la Unión.

Esleipendunari egotzitako arrazoiengatik adierazitako epean kontratua formalizatuko ez balitz, zigor gisa, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZik gabe, zeina behin betiko bermetik kobratuko den, eratu bada; alde batera utzi gabe, urratze hori kontratatzeko debekuaren arrazoitzat jotzea		Cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3% del presupuesto base de licitación, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de su consideración como causa de prohibición para contratar.
Kasu horretan, eskaintzak sailkatutako hurrenkeraren arabera hurrengoa den lizitatzaileari esleituko zaio kontratua, adierazitako epeetan baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren.		En tal caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos, en los plazos antes señalados.
III.- KONTRATUA BETETZEA		**III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
23.- KONTRATUAREN ARDURADUNA		**23.- RESPONSABLE DEL CONTRATO**
Zestoako Udaletxeko, Administrazio Orokorreko Teknikaria izango da kontratu hau gauzatzearen arduraduna, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.		En el presente contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 62 de la LCSP se designa como responsable de la ejecución del contrato al Técnico de la Administración General.
24.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA ETA ZIGORRAK		**24.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO Y PENALIDADES**
Kontratua enpresa esleipendunaren gain eta kontura beteko da, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera.		La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la empresa adjudicataria, con arreglo al artículo 197 de la LCSP
Kontratua betetzeko, plegu honetan jasotako klausulak eta, halakorik balego, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoak jarraituko dira, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.		El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y, en su caso, a las especificaciones técnicas unidas al expediente, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente.

Enpresa esleipendunari edo bere mendeko pertsonei leporatu ahal zaizkien ekintzengatik edo ez- egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake.		Cuando por actos u omisiones imputables a la empresa adjudicataria o a personas de ella dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.
Kontratista berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu bada, Administrazioak kontratua bertan behera uzteko edo SPKLren 192 eta 193. artikuluek aurreikusitako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.		Cuando la empresa contratista, por causas imputables al mismo, hubiera incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades previstas en los artículos 192 y 193 de la LCSP
Kontratuaren xede den prestazioa behar bezala betetzen ez bada, kontratazio-organoak kontratuaren esleipen-prezioaren %1-a eta% 10-a arteko zigorrak ezarri ahal izango ditu, larritasunaren arabera. Kontratazio-organoak ezarriko ditu zigor horiek, enpresa kontratistari eta, hala badagokio, abal-emaileari entzunaldia emateko espedientea izapidetu ondoren.		En el caso de cumplimiento defectuoso de la prestación objeto del contrato, el órgano de contratación podrá imponer penalidades, en proporción a la gravedad, por importe entre 1% y el 10% del precio de adjudicación del contrato. Estas penalidades se impondrán por el órgano de contratación, previa tramitación del oportuno expediente en que se dará audiencia a la empresa contratista, y en su caso, al avalista.
25.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK		**25.- CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN**
<u>25.1 Hizkuntza arloan. Eskubideak eta betebeharrak euskararen erabileran.</u>		**<u>25.1 Materia lingüística. Derechos y obligaciones en el uso del euskera</u>**
1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten araudietan erregulatua.		1.-Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6 y regulado por la Ley 17/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla.

2.- Enpresa esleipendunak administrazio kontratatzaileari aplikatzen zaizkion hizkuntza-arauen arabera jardungo du kontratuaren xede diren zeregin guztietan.		2.- La empresa adjudicataria actuará de conformidad con las normas lingüísticas que de hecho se apliquen a la administración contratante, en todos los cometidos objeto del contrato.
3.- Errotuluak, komunen funtzionamendurako informazioa, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.		3.- Los rótulos, la información sobre el funcionamiento de los aseos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general se harán mediante un pictograma, acompañado de un mensaje explicativo en euskera
Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.		Si no resulta posible hacerlo mediante un pictograma, se harán en euskera cuando se trate de mensajes conocidos y comprensibles.
Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, euskaraz eta beste hizkuntzetan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.		Si los dos casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad de la administración
4.- Administrazio kontratatzailearekin euskara erabiliko da, oro har, kontratuaren ondorioz sortzen diren harremanetan:		4.- Normalmente se utilizará el euskera con la administración contratante, en todas aquellas relaciones que se den como consecuencia del contrato:
a) Ahozko harremana euskaraz izango da. Kontratatutako enpresan euskara maila egokia duen pertsonarik ez badago, enpresak bitarteko egokiak edo hizkuntza gaitasun nahikoa duten pertsonak jarri beharko ditu administrazioarekin harremanak euskaraz izateko.		a) La comunicación oral se realizará en euskera. En caso de que no exista en la empresa persona alguna con buen conocimiento de euskera, la empresa deberá disponer de inmediato los medios necesarios o bien el personal con suficiente capacidad lingüística en euskera para poder comunicarse en dicha lengua con la administración.
b) Idatziak euskaraz ere idatziko dira: fakturak, lan-txostenak etab.		b) Los escritos se redactarán también en euskera: facturas, partes de trabajo etc.

5.- Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, SPKLren ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 211.f) artikuluaren arabera.		5.-Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley.
6.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62 eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak ikuskatuko du ea kontratuko hizkuntza-baldintzak betetzen diren, segimendua egingo du, eta horretarako behar diren erabakiak hartuko ditu. Ikuskapena ez da bukaeran bakarrik egingo; aitzitik, jarraitua izango da.		6.- De conformidad con el artículo 62 y 210 de la LCSP, la persona responsable del contrato inspeccionará el cumplimiento condiciones lingüísticas del contrato, hará seguimiento, adoptará las decisiones y dictará las instrucciones necesarias a tal fin. La inspección se realizará no solo a su finalización sino de modo continuado.
25.2. Enpresa esleipendunaren lan eskubideak eta betebeharrak		**25.2 Derechos y obligaciones laborales de la empresa adjudicataria**
1. Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak.		1. El contrato estará obligado al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes y aplicables en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.
Esleipendunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza. Zestoako Udalak ez du inongo harreman juridikorik izango esleipendunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere.		La contratación y formación del personal a su servicio será responsabilidad exclusiva del adjudicatario. El Ayuntamiento de Zestoa no mantendrá relación jurídica alguna con el personal que trabaja para el adjudicatario, ni durante la vigencia del contrato objeto de estos pliegos ni después de su finalización.
2. Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzen den denbora guztian, beti ere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan.		2. El salario recogido en el convenio colectivo será abonado por la empresa adjudicataria durante todo el tiempo de ejecución del contrato, en función de la categoría profesional a la que pertenezca el trabajador, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior.

3. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 221.f) artikuluaren arabera.		3. Las condiciones de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la Ley de Contratos del Sector Público. Por tanto, el incumplimiento de las condiciones podrá dar lugar a la resolución del contrato de conformidad con el artículo 221.f) de la citada Ley.
26.- HORNIDURA HARTZEA ETA BERME-EPEA		**26.- RECEPCIÓN DEL SUMINISTRO Y PLAZO DE GARANTÍA**
Hornidura entregatu eta hilabete gehienezko epean, harrera-egintza formal eta positiboa egingo da.		En el plazo máximo un mes desde que se efectúe la entrega del suministro, se producirá el acto formal y positivo de recepción del mismo.
Hornidura jasotzeko moduan ez badago, berariaz jasoko da, eta kontratistari akatsak zuzentzeko edo beste hornidura bat egiteko jarraibideak emango zaizkio. Zuzenketa edo ordezpena egiten ez denean, Administrazioak kontratistaren kontura utziko du, ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuz edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea eskuratuz.		Cuando el suministro no se halle en condiciones de ser recibido, se hará constar expresamente y se darán instrucciones al contratista para que subsane los defectos o proceda a un nuevo suministro de acuerdo con lo pactado. Cuando no se realice la subsanación o sustitución, la Administración lo dejará de cuenta del contratista quedando exento de la obligación de pago o adquiriendo el derecho a recuperar lo pagado.
Kontratuaren xede den hornidurak BI urteko berme-epea izango du, jasotzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan, Administrazioak egiaztatu ahal izango du egindako lana bat datorrela kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioekin eta baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoarekin. Berme-epea igarotakoan hornidurari eragozpenik jarri ez bazaio, kontratistaren erantzukizuna azkenduko da.		El suministro objeto del contrato quedará sujeto a un plazo de garantía de DOS años, a contar desde la fecha de recepción, plazo durante el cual la Administración podrá comprobar que el trabajo realizado se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento y a lo estipulado en el presente Pliego y en el de Prescripciones Técnicas. Transcurrido el plazo de garantía sin que se hayan formulado reparos al suministro efectuado, quedará extinguida la responsabilidad del contratista.
Administrazioak, berme-epean, eskubidea izango du akatsak dituzten hornidurak berritzeko edo konpontzeko, nahikoa bada.		La Administración, durante el plazo de garantía tendrá derecho a la reposición o reparación, si ello fuera suficiente, del bien suministrado cuando presente vicios o defectos.

Berme-epean, Administrazioa konturatzen bada jasotako hornidurak, esleipendunaren akatsen ondorioz, ez direla egokiak eta susmatzekoa bada akatsak konponduta edo hornidura berria emanda ez dela nahikoa izango, atzera bota ditzake eta esleipendunaren kontura utzi epe horretan bertan.		Si la Administración constatase, durante el plazo de garantía, que el bien suministrado no es apto para el fin pretendido como consecuencia de los vicios o defectos imputables al contratista y fuera presumible que su reposición o reparación no son suficientes para conseguir aquel fin, podrá, dentro de aquel plazo, rechazarlo y dejarlo a cuenta del contratista.
27.- KONTRATUA ALDATZEA		**27.- MODIFICACIONES DEL CONTRATO**
Behin kontratua burutzen denean, interes publikoak eragindako aldaketak bakarrik sartu ahalko dira, klausula honetan ezarritako kasuetan edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan jarritako kasuetan eta mugekin.		Una vez perfeccionado el contrato, solo se podrán introducir modificaciones por razones de interés público, en los casos previstos en esta cláusula o en los supuestos y con los límites establecidos en art. 205 de la LCSP.
Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, proposamena idatziko dute dagokion departamentuak eta kontratuaren arduradunak, aldaketa arrazoitzen, deskribatzen eta baloratzen duten agiriekin batera. Administrazioak enpresa kontratistari entzunaldia emango dio, aldaketa onartu aurretik. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketok; baina, aurretik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 191 eta 207 artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatuko da eta dokumentu administratiboa formalizatuko da, lege bereko 153. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko bermea berregokituta, hala behar bada.		Cuando sea necesario introducir modificaciones en el contrato el departamento correspondiente junto con el responsable del contrato redactará la oportuna propuesta, integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquella. La aprobación de la modificación por la Administración requerirá la previa audiencia de la empresa contratista. Las modificaciones deberán ser aprobadas por el órgano de contratación previa tramitación del procedimiento previsto en el art. 191 y 207 de la LCSP y formalizarse en documento administrativo con arreglo a lo señalado en el art. 153 de la LCSP, previo reajuste de la garantía definitiva en su caso.

28.- KONTRATUA BUKATZEKO ARRAZOIAK		**28.- CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**
Plegu honetan eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 306. artikuluetan ezarritako kasuetan suntsiaraziko da kontratua, eta kontratazio-organoak erabakiko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta.		La resolución del contrato tendrá lugar en los supuestos que se señalan en este Pliego y en los fijados en los artículos 211 y 306 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, y se acordará por el órgano de contratación, de oficio o a instancia del contratista.
Kontratua bukatzeko berariazko arrazoia izango da administrazioarekin kontratatzeko betekizunak bat- batean galtzea (kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena galtzea eta kontratatzeko debekuren bat izatea), Sektore Publikoko Kontratuen Legean jartzen duen moduan.		Se establece como causa expresa de resolución del contrato la pérdida sobrevenida de los requisitos para contratar con la administración (exigencias de capacidad del contratista y no estar incurso en ninguna causa de prohibición de contratar) en los términos establecidos en la LCSP
Kontratua kontratistaren erruz suntsiarazten denean, behin betiko bermea konfiskatuko da, Administrazioari sortutako kalte-galeren kalte-ordainari kalterik egin gabe, bermearen zenbatekotik gorakoak direnean.		Cuando el contrato se resuelva por culpa del contratista, se incautará la garantía definitiva, sin perjuicio de la indemnización por los daños y perjuicios originados a la Administración, en lo que excedan del importe de la garantía.
29.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK		**29.- DERECHOS DE LA ADMINISTRACIÓN**
Administrazioari honakoak dagozkio:		Corresponde a la Administración:

a) Kontratua interpretatzea. b) Kontratuan sor daitezkeen zalantzak argitzea. c) Interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea. d) Kontratua amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta horiek zehaztutako baldintza eta ondorioak betez.		a) Interpretación del contrato. b) Resolver las dudas que puedan surgir en el contrato. c) La modificación del contrato por razones de interés público. d) La extinción del contrato y la determinación de sus efectos, dentro de los límites y con las condiciones y efectos establecidos en la Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
30.- KONTRATUA HIRUGARRENEI LAGATZEA AZPIKONTRATAZIOA		**30.- CESIÓN DEL CONTRATO A TERCEROS. SUBCONTRATACIÓN**
Zestoako Udalak berariaz baimendu ezean, esleipendunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.		La empresa adjudicataria no podrá sin previa autorización expresa del Ayuntamiento de Zestoa, ceder ni traspasar los derechos y obligaciones derivadas del contrato, a otra persona o empresa.
Halaber, aurretik Udalak espresuki baimendu ezean, esleipendunak ezingo du lanen zati bat hirugarren batekin hitzartu edo azpikontratatu.		La empresa adjudicataria tampoco podrá subcontratar ni concertar con terceros la realización parcial de la prestación, salvo que el Ayuntamiento lo autorice expresamente.
31.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN TRATAMENDUA		**31.- CONFIDENCIALIDAD Y TRATAMIENTO DE DATOS**

Enpresa esleipendunak (datuen tratamenduaren arduraduna den aldetik) eta haren langileek, osotasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak betez, eskura dituzten datu pertsonalak segurtasun egokia bermatzeko moduan tratatu behar dituzte, baita datu horien galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa bermatzeko ere, eta horretarako neurriak aplikatu behar dituzte baimendu gabeko edo legez kontrako tratamenduaren aurka eta teknika edo antolamendu egokien aurka, Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoan eta datu pertsonalen babesari buruzko 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.		La empresa adjudicataria (como encargada del tratamiento de datos) y su personal en cumplimiento de los principios de integridad y confidencialidad deben tratar los datos personales a los que tengan acceso de forma que garanticen una seguridad adecuada incluida la protección contra su pérdida, destrucción o daño accidental, mediante la aplicación de medidas el tratamiento no autorizado o ilícito y contra técnicas u organizativas apropiadas de conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento 2016/679 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos).
Betebehar hori sekretu profesionalaren betebeharren osagarria da, eta datuen tratamenduaren arduradunarekin (udala) egindako kontratua amaitu bada ere, indarrean jarraituko du.		Esta obligación es complementaria de los deberes de secreto profesional y subsistirá aunque haya finalizado el contrato con el responsable del tratamiento de los datos (Ayuntamiento).
Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, lizitatzaileei jakinarazten zaie eskaintza eta kontratazioa egiteko behar diren gainerako agiriak aurkeztuz biltzen diren izaera pertsonaleko datuak Udal honek tratatuko dituela, kontratuaren garapena behar bezala mantentzen, betetzen eta kontrolatzen dela bermatzeko.		En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento general de protección de datos, los licitadores quedan informados de que los datos de carácter personales que, en su caso, sean recogidos a través de la presentación de su oferta y demás documentación necesaria para proceder a la contratación serán tratados por este Ayuntamiento con la finalidad de garantizar el adecuado mantenimiento, cumplimiento y control del desarrollo del contrato.
IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA		**IV.- NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE**
32.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA		**32.- NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO**

Klausulen agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, honako hauek bete beharko dira: a) Sektore Publikoko Kontratuen Legea; b) Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra; c) Eta kasuan kasu, Administrazio Publikoen kontratazioan aplika daitezkeen arauak.		El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter administrativo y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, y demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas
Administrazio-klausulen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.		En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.
33.- JURISDIKZIO ESKUDUNA		**33.- JURISDICCIÓN COMPETENTE**
Era berean, kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpon daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakorekin bat etorriz.		Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa, no obstante lo cual, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente.
Kontratua interpretatzetik, aldatzetik, bukatzetik eta horren ondorioetatik sortzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Horretarako hartutako akordioek administrazio-bidea agortuko dute. Akordio horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoarekin bat etorriz; dena den, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123 eta 124. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute.		Las cuestiones litigiosas surgidas sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos del contrato serán resueltas por el órgano de contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y contra los mismos habrá lugar a recurso contencioso-administrativo, conforme a lo prevista por la Ley reguladora de dicha jurisdicción, sin perjuicio de que los interesados puedan interponer recurso potestativo de reposición, previsto En los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015 de 5 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Bestalde, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako berraztertze-araubide berezia aplikatuko da, eta horregatik errekurtso berezia jarri daiteke.		Asimismo, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 44 y siguientes de la LCSP, el presente contrato será susceptible de recurso especial en materia de contratación.
EGINBIDEA: 2022ko maiatzaren 30an Alkatetza Dekretu bidez Baldintza Orri hau onartu da.		**DILIGENCIA**: El presente Pliego de Condiciones ha sido aprobado por Decreto de Alcaldia el 30 de mayo de 2022